

Esker ona

Ikerketa-prozesuan parte hartu eta beren esperientziak, bizipenak, iritziak eta pasadizoak gurekin partekatu dituzten emakumeei. Eskerrik asko, guzti-guztiei, zuen historia pertsonal eta kolektiboaren zati bat gurekin partekatzeagatik. Errenteriako Berdintasun Kontseiluan parte hartzen dutenei, han jaio baitzen ekimen hau gauzatzeko interesa; udalerriko hainbat taldetako kideei: Bilgune Feminista, sindikatuak, *Gure Leku* eta *Gurekin* emakume taldeak, *Pakearen aldeko Taldea*, Pontikako, Galtzarabordako, Agustinetako, Olibeteko, Kaputxinoetako eta Gabierrotako erretiratuen elkarteak. Eskerrak, halaber, oroimen sozialeko proiektu honetan nor bere izenean parte hartu duten emakumeei. Aitorpen berezia egin nahi diegu Bittori Arrietari eta Karmele Fernández Bogari, proiektua sustatzeko eta lantaldea osatzeko eta mantentzeko egin duten lanagatik.

Eresbil kudeatzen duten langileei, bereziki Jon Baguesi eta soinuaz arduratzen den talde teknikoari, gure eskura jartzeagatik areto eroso bat. Bertan, elkartu eta oroitzeko aukera izan genuen, eta esku hartu genuen, hainbat modutan, informazioa dokumentatzeko zereginetan.

Errenteriako Udal Artxiboari eta Udal Liburutegiari, lan hau egiteko ezinbesteko materiala emateagatik.

Miguel Ángel Barcenilla historialari adituari, herriaren eta bertako emakumeen bilakaeraren gainean gogoeta egiteko eta gaiari buruzko ezagutzak partekatzeko prest egoteagatik.

Junkal Garcíari, proiektua erraztu duelako bere interes, kontaktu, ideia, dokumentu eta argazkiei esker, eta kultura-arloko guneari esker.

Ahotsak egitasmoari, ahozko material aberatsa dokumentatzeagatik eta gure ikerketa-proiektuan eta beste hainbatetan material lagungarri gisa erabiltzeko moduan jartzeagatik.

Savina Lafita lagunari, bildutako informazioa prozesatzen eta idazten kolaboratzaile argi, sortzaile eta eraginkorra izateagatik, eta aurkeztutako testuaren zenbait lerro idazteagatik.

Gema Mariezkurrenari, lan-prozesuan argazkilari gisa egindako lanagatik.

Lierni Gartzinari, herriko emakumeekin industriaren ibilbidea egiteagatik.